

1 HIL NINTZEN EGUNA

*Zeinek eman dit aukera
hemen mikrofono aurrean
biluzik irten ta hitzetan
nahi dudana esan ta izkutatzeko?*

*Ez al da eguna gauaren etsai?
Ez al da eguna dena apurtzeko?*


*Zeinek eman dizu aukera
hona deitu ta aurpegira
merezti ditudan hitzak
nahi duzuna esan ta izkutatzeko?*

*Ez al da eguna gauaren etsai?
Ez al da eguna dena apurtzeko?*

*Nik behintzat ez dut oroitzen jaio nintzen eguna
negar asko agin nuela, hori ez da berria
hil nintzen egunaz bai, oroitzen naiz zure zai
baina jada ez zait axola, berriz jaio naiz*

*eta ez dakit zu oraindik bizirik zauden
eta negar egin behar badut arrazoi on bat
bilatzen dihardut*

*jaio nintzen egunaz oroitzen naiz zure zai
baina jada ez zait axola
gaur berriz jaio naiz*



2 I SPERO ZAITZAKET

*Igande iragande, ez daukazu planik
Hollywood filme merkeren bat
Rock&roll bostehun kanta
idatziko ditut zu ez aspertzeko
zoruari zerua marraz genezake
bakarrik etorri, etxean ez dago inor*

Ta espero zaitzaket

*Igande iragande ez daukazu planik
Athletik Athletik, partida txarren bat
Rock&roll bostehun kanta
bakarrik etorri etxean ez dago inor*

Ta espero zaitzaket

*Esaidazu zein den zure izena
eman zure helbidea
eta bakarrik sentitzen banaiz
ikusiko dugu elkar
bakardadearen kontra denok dugun
borroka zail honetan
zenbatu al dituzu porrotak eta garaipenak?*



3
IZENA, IZANA, EZINA

Hemen gaude

Zuekin bat natorrela esan nahi dut
lur zati txiki hau horren da eder
titular guztiak guri buruz dira
baina ez digu inork ezer ere galdetu

Batzu mila kilometrora
bihotzetik gertu alegia
beste batzu bertan bizita
horren urrun

Ta hemen gaude...

Zuekin bat natorrela esan nahi dut
lur zati txiki hau horren da zaila
gezurra dirudi ez da nekerik
beti ilusioak eraberritzen

Batzu mila kilometrora...

Sentimenduak ez dira inoiz izan
batzuk saldu nahi duten bezain azalekoak

Ta hemen gaude...

Zuekin bat natorrela esan nahi dut
lur zati txiki hau horren da zahar
behin eta berriz inausi digute hitza
debekuren artzietekin

Batzu mila kilometrora...

Sentimenduak ez dira inoiz izan
batzuk saldu nahi duten bezain azalekoak
horren konplikatuia ta simplea da
hauxe da gure izena, izana ta ezina

Abistegiaren izenburuak guri buruz izan ohi dira
baina oraindik inork ez digu sekula ezer galdetu
ta hemen gaude...

PINTADEK

Semaforo baten bat lotsagorritu egin da
jaio nintzen hiria mirestu dudanean
nahiz parkingak dauden orain
gure historiaren sotoetan

Ta kolore arrotz hauek oihuka diote batzuk
errezago luketeela berdin pentsatuko bagenu


Ezjakintasunaren fanen bat harritu egin da
jaio nintzen hiria mirestu dudanean
nahiz hiperrak dauden orain
aldiritan zaindari

Ta kolore arrotz hauek oihuka diote batzuk
errezago luketeela berdin pentsatuko bagenu

Pintadek esan ohi dute paperek isiltzen dutena

Ta diglasi behartuak oihuka, orruka dio batzuk
errezago luketeela berdin mintzatuko bagina

Pintadek esan ohi dute...



EMAZTEN FABORE II

Gaur ez al zaizu iruditu garaiak ez direla batek nahi bezain azkar beti aldatzen?

Gaur
bi milioigarren aldiz harrikoa egiten ari zela beste bat joka hil dute

Gaur ez dago minutuko isilunerik
mendeak daramazkigu isilik

Gaur
bi milioigarren aldiz laguntza eskatzen ari zela beste bat joka hil dute

Gaur ez dago minutuko isilunerik
mendeak daramazkigu isilik
gaur ez burulerrorik kasu soite bat da langile zendu hori bezala

Gaur ez dago minutuko isilunerik
mendeak daramazkigu isilik

6

KANTA GOIBELAK

Mundua mozkor zegoen ta ihes egin genion
kantu bera entzuteaz nazkaturik jendea bakarrikzela trukean dabilela aipatu zenidan eta egia da

Kanta goibelak ditugu maite
ez galdetu arrazoia biharko nitaz ahaz zintezke eta bada ez bada

Ta zer giro da zurean, nola dabil jendea?
ta zer diozu ispilu horizontalez?
hau irribarre bidezko erahilketa ote den leporatu nizun eta egia da

Kanta goibelak ditugu maite...

Bizitza motzegi, orduak luzeegi
dirudite flexo honen argitzaletan gela txikiegi, ohea handiegi kanpoan mundua jeltoskor nire zai mundua nire zai

Kanta goibelak nautle maite
ez galdetu arrazoia eguzkia hilko nuke orain hemen bazina hemen bazina

EZ NAIZ ALDATUKO

(ESAN ZUEN KAMALEOIAK)

Ni ez naiz aldatuko
esan zuen kamaleoiak

Izarrak zure zai daude, hala esan didate
zeruko maindire beltza han hemenka zulatzen

Izarrak zure zai daude, ez al dituzu ikusten
hor gelditu behar al duzu egun gordinak jaten?



Ta zure oroitzapenen kutxa beltza
bilatzen jarraitzen duzu jakiteko ziur ustezko hegaldi hau nola hasi zen ustezko hegaldi hau ez ote den gaizki eta oker, txarto ulertutako erorketa

Ni ez naiz aldatuko esan zuen kamaleoiak

Denbora hartu ikusteko
jausi behar dela aitzatzeko eta erokeriaren bat inozkeriaren bat egin beharko zenuke: zoriotsu izan edo halako zeezor

Ta zure oroitzapenen...

Inork ez zuen esan erreza izango zenik



DENAK EZ DU BALIO

Ez gaudela Erdi Aroan egutegiak dio, pare bat milenio diktaketatik kanpo zeuden mezulari denak (is)hiltzen saiatu diren arren

So tonight we open up our hearts
staring straight into the sky
we are blinded by ambition
to be part of their lie
seperation from these places
seperation from these times
can we transcend this reptition?
transcend this life

Geroa eta iragana ezabatuak izan dira
oraina luze eta antzua, mutu itsua geure aurrean


Ez gaudela Erdi Aroan egutegiak dio eta erregeak zer dio txanponetatik kanpo? gutxiengo direnontzat sordun ahizak dirauen arren hauen arren

So tonight we...

Geroa eta iragana ezabatuak izan dira oraina, luze eta antzua, mutu itsua geure aurrean biharra ez da existitzen eta halere ziur gaude gaurkoa ez dela amesten guenenaren antzekoa

Ez gaudela Erdi Aroan denak ez du balio ezerk ez al du balio?

Geroa eta iragana ezabatuak izan dira oraina luze eta antzua, mutu itsua geure aurrean biharra ez bada existitzen orain antzu hau saiatuko garela aldatzen aldatzen, aldatzen
I am talking about changing

BEREZ IAN HANON 
GURE BAHATEK IKERTZEN DITAU
ZURENEN ZERLAGATZ ~~BERA~~ BEGIRA
JONANAHAK ITSUOTA GAUDE,
BERAREN GELUZKAZEN TASTE IZATEKO
LEKU HOLEDETIK BEBESITA,
GARA HOLEDETIK ADOSTE
GARA IZAN O AL GARA
BEREPIKAREN HAU GAITZTEKOO?
BIZITEA HAU GAITZTEKOO?

IRAILAK 10

Non gauden eta nota guenden
Irailak 11 baino lehen
nork, zeinek agintzen duen heman
lehendik ere bagenekien

Ta txakur denek izan ohi dute
bere jabearen itxura

Bi mila eta bat, Irailaren hamar
lupuek Aitzakia ez zuten eguna

Nork deitu dio gerra honi
noiz ospitaleetan tankerik
ez, people-a azkena da beti
ze, segurtasun mota da hori?


Ta txakur denek izan nahi dute
bere jabearen itxura

Bi mila eta bat, Irailaren hamar
lupuek Aitzakia ez zuten eguna
azken eguna

Munduak ordutik hona
Guantanamo erraldoi bat dirudi

Zeinena da orain erantzunkizuna?
Nor hizi da seguru?

BFC



*Beitu, zenbatu, gehitu
ondokoak baino mugikor txikiago bat
ondokoak baino tli handiagoak
ondokoak baino kotxe azkarrago bat
ondokoak baino modelo berriago bat*

*Ezin esan, ezin egin
ezin pentsa, ezin senti
dena da hemen debekugai*

*Aske zarete, libre ©
zuen kaiola erraldoietan
dena eros daiteke
zuen kaiola erraldoietan
hala ere kexu zara
zure kaiola erraldoi horretan
katez alda dezakezue
zuen kaiola erraldoietan*

*Beitu, zenbatu, gehitu
ondokoak baino mozkor luzeago bat
atzokoa baino saio kultureago bat
atzokoa baino kantu errezago bat
ondokoak baino gerri argalagoa*

*Ezin esan, ezin egin
ezin pentsa, ezin senti
dena da hemen debekugai*

*Aske zarete, libre ©
zuen kaiola erraldoietan...*


Beitu, zenbatu, gehitu...

*Mundua obratan dago baina guk ez dugu ezer apurtu
eta eurria ari du, baina guk ez dakigu nork
eta haizea haserre dago, baina ez dakigu norekin
eta itsasoa?*

*Itsasoa ere haserre dago
eta izen pare bat okurrizten zaizkit
baina isildu egingo naiz demokraziaren izenean*

Aske zarete, libre ©...

LIBRE ©



GEZUR BAT MILA ALDIZ

Gezur bat, egia galdu bat
gezur bat

Esan gezur bat mila aldiz
errepikatu hitzez hitz
handik gutxira ikusi egia bihurtzen


Loreak beltzak dira hemen
eta aldez aurretik dakigu zer usain duten
maitaleentzako jaio ote diren
edota hilerrri hotz baten ustelduko diren

Esan egia bat mila aldiz
errepikatu hitzez hitz
haien ahotan ikusi gezur bihurtzen

Eguzkia pribatu da hemen
eta aldez aurretik dakigu zer asmo duen
nor berotu eta nori egarri eman
nor argitu eta nor itsutu nahi
zein inar gaiztoz kixkali
nor itzalez erahil
itzalelan hil behin eta beriz

Sinisten dudanaren zerrendan
zaintzak daude hasieran
irizien laberinto honetan
zein ez da galdu galderatan?
Ikurrak helduek egindako
marrazki traketsak direnez
izan zeure ikur eta marraztu
heldurik gabeko mundu bat

Egia galdu bat, gezur bat
behin eta beriz.



Garate Studios (Andoain, EH), Kaki Arkarazo teknikari; Konposizio lan gogor baten ostean 2003ko Abuztuaren grabatua, 11. kantua izan ezik (2003ko maiatz). Ekoizpena Berri Txarrak eta Kaki. Masterispont estudioetan Jesus Arisontek masterizalua.

Hitzak eta musika guztiak Gorka U. eta BERRI TXARRAK, "Denak ez du balio" abestiko ingelezarako zatitzaia izan ezik (Tim McIlrath). Diseinua Bektor Anduezak egina da eta argazkiak J.L. Pujol, Bektor Andueza eta Adolfo Lakuntzarenak.

"Denak ez du balio" kantuan RISE AGAINST taldeko Tim McIlrath-ek kolaboratu du. Bere ahotsa Chicago (ABE)-ko Atlas estudioetan grabatu zuten, Neil Hennessy teknikari zela.

Ez genuke inor ahaztu nahi eskerrak ematerako orduan:

Berri Crew zuzenean: Iosu, Lander, Klenbu, Juanjo
Berri Crew itzalean: Arkaiz eta Isma.net, Oihana Txartalo, Bektor
GOR diskoetxea, Marino, Carola (emagiri, o jolan!?), Goizder, Jabiertxo, Xaplin, Pau, Natxo, Alicia, Kaki Rubin & Garate Kids. Mila esker grabazioarako materiala utzi diguzuen guztiok.

Extra thanks to Tim McIlrath, we will never forget what you did. Much respect for you and all the kids in your great band RISE AGAINST. Chicago-Basque Country connection did work! See you soon on the stage!
Also thanks to Neil Hennessy from The Lawrence Arms for making this possible.

Agur bat familiariek eta lagunei, Asiero, Nerea, Amaita, Itziar, Jokino, Angela ta Nerea, Izaskun eta Irati, Zari, Imanol, Urko Tiko Tiko, Tekila, Punki, Jule, Litus, Pore Ilums, Jaime, Txosse, Pin, Peña L'olliana, Juan y la Peña de Villar, Emilio y la Peña Pedroñeras, Jordi Meya, Juan Destroyer, Robert Villandiego, Beyonce, Gabariko Jendea, Euskal Herriko gazteluek, Carlos Garcia, Txin eta Arrasate inguruko Spielberg taldea, Peña Madridi (Baitot...), Itargiko Jendea (Lopo...), Pere Manresa, Juanja Kog (endavanti!), Ima eta Joni anaia, Bull eta Inadapats, Alora Zea Mays, Fernando Sapo, Gorka Leiholikan (Elorriko 2002), Herrian falta ditugun horientzat.

Jousiouii (Hellizale Motherfuckers!), Leiholikan eta gurekin bide luzean jo duten talde guztiak agur bat. Gure elkartasuna "Torquemada" berri hauen jazarpena jasan duten (dugun) talde guztiak. Kultura eta ideiak ezin direlako debekatu, oihi!

Eta mila esker ZURI, beti hor egoteagatik. Esan, egin, pentsa, senti.

HAUXE DA GURE IZENA, IZANA ETA EZINA

Idatzii!

BERRI TXARRAK
Arelar Kalea 50, 1. Esk
31870, LEKUNBERRI
(Nafarroa - Euskal Herria - Basque Country)
berritxarrak@jet.es

Gure kontzertuen berri jakiteko, gure jantziak eskatzeko, eta abar, bisita ezazu:
Para obtener las letras en castellano, pedir merchandising, conciertos, etc visita:
For lyrics in english, merch, tour... please visit:
Si vols aconseguir les lletres en català, merchandising, etc, visita:
Pour obtenir les lettres en français, demander merchandising, des concerts...:

www.berritxarrak.net

